

**Fiskaliza**

**Informe de fiscalización**

**EAEko Udal Entitateen  
Kontuei buruzko txostena**

**Informe sobre las Cuentas  
de las Entidades Locales  
de la CAPV**

**2003**



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas



## AURKIBIDEA/ÍNDICE

<b>I. SARRERA</b> .....	<b>4</b>
<b>II. ONDORIOAK</b> .....	<b>5</b>
II.1 UDALAREN KONTUAK.....	5
II.2 UDALAZ GAINDIKO KONTUAK.....	6
II.3 UDALEN FINANTZA EGOERA.....	7
II.4 UDALAZ GAINDIKO ENTITATEEN FINANTZA EGOERA.....	8
<b>III. AZALPEN ATALAK</b> .....	<b>9</b>
<b>III.1 UDALAK</b> .....	<b>9</b>
III.1.1 2003ko ekitaldiaren kontuak.....	10
III.1.2 Udalen finantza egoera 03/12/31n.....	15
<b>III.2 UDALAZ GAINDIKO ENTITATEAK</b> .....	<b>30</b>
III.2.1 2003ko ekitaldiaren kontuak.....	30
III.2.2 Udalaz gaindiko entitateen finantza egoera 03/12/31n.....	34
<b>I. INTRODUCCIÓN</b> .....	<b>40</b>
<b>II. CONCLUSIONES</b> .....	<b>41</b>
II.1 CUENTAS MUNICIPALES.....	41
II.2 CUENTAS SUPRAMUNICIPALES.....	42
II.3 SITUACIÓN FINANCIERA MUNICIPAL.....	43
II.4 SITUACIÓN FINANCIERA DE LAS ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES.....	44
<b>III. APARTADOS EXPLICATIVOS</b> .....	<b>45</b>
<b>III.1 AYUNTAMIENTOS</b> .....	<b>45</b>
III.1.1 Cuentas del ejercicio 2003.....	46
III.1.2 Situación financiera municipal a 31/12/03.....	51
<b>III.2 ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES</b> .....	<b>67</b>
III.2.1 Cuentas del ejercicio 2003.....	67
III.2.2 Situación financiera de las entidades supramunicipales a 31/12/03.....	71



<b>IV. ANEXOS.....</b>	<b>77</b>
IV.1 LIQUIDACIONES AGREGADAS DE LAS ENTIDADES LOCALES PARA EL EJERCICIO 2003 .....	77
IV.2 DEFICIENCIAS EN EL CONTENIDO FORMAL DE LA CUENTA GENERAL DE LOS AYUNTAMIENTOS.....	85
IV.3.1 DEFICIENCIAS CUALITATIVAS EN EL CONTENIDO DE LA CUENTA GENERAL: ASPECTOS PRESUPUESTARIOS .....	93
IV.3.2 DEFICIENCIAS CUALITATIVAS EN EL CONTENIDO DE LA CUENTA GENERAL: CONTABILIDAD PATRIMONIAL .....	101
IV.4 DEFICIENCIAS EN LOS PLAZOS DE APROBACIÓN DEL PRESUPUESTO, LIQUIDACIÓN Y CUENTA GENERAL .....	109
IV.5 RATIOS FINANCIEROS DE LOS AYUNTAMIENTOS PARA EL EJERCICIO 2003, EN EUROS/HABITANTE .....	117
IV.6 LIQUIDACIÓN AGREGADA DE LAS ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES DE LA CAPV .....	125
IV.7 DEFICIENCIAS EN EL CONTENIDO FORMAL DE LA CUENTA GENERAL DE LAS ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES .....	127
IV.8.1 DEFICIENCIAS CUALITATIVAS EN EL CONTENIDO DE LA CUENTA GENERAL: ASPECTOS PRESUPUESTARIOS .....	129
IV.8.2 DEFICIENCIAS CUALITATIVAS EN EL CONTENIDO DE LA CUENTA GENERAL: CONTABILIDAD PATRIMONIAL .....	131
IV.9 DEFICIENCIAS EN LOS PLAZOS DE APROBACIÓN DE PRESUPUESTO, LIQUIDACIÓN Y CUENTA GENERAL .....	133
IV.10 RATIOS FINANCIEROS DE LAS ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES PARA EL EJERCICIO 2003, EN EUROS/HABITANTE .....	135
IV.11 RESUMEN DE LAS LIQUIDACIONES DE LOS AYUNTAMIENTOS DEL EJERCICIO 2003, EN MILES DE EUROS.....	137
IV.12 RESUMEN DE LAS LIQUIDACIONES DE LAS ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES DEL EJERCICIO 2003, EN MILES DE EUROS.....	145
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>147</b>

Vitoria-Gasteiz, 2005eko abenduaren 19a  
Vitoria-Gasteiz, a 19 de diciembre de 2005



## I. SARRERA

Epaitegi honek 2004ko ekaina-2003ko maiatzerako hezurmamitu duen Lan Programa betez, Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) udalen eta udalaz gaindiko entitateen 2003ko Kontu Orokorrek ez ezik, horien eduki formala eta sektorearen finantza egoera ere aztertu ditugu.

Aurreko urteetan egin dugun lez, Txosten honi itsatsitako Kontuak EAEn 2003ko ekitaldian zeuden 250 udal administrazioei (ez ditu besarkatzen erakunde autonomoak eta sozietate publikoak) eta udalaz gaindiko 61 entitateei soil-soilik dagozkie. Multzo honetan Partzuergoak barne hartu ditugu, baso lanak ustiatzea helburu duten entitateak.

Kontu globalak (EAEn udalen multzoa eta lurraldeen arabera banaketa, eta udalaz gaindiko entitateen multzoa eta betetako zerbitzu motaren arabera banaketa) fiskalizatu gabeko likidazioak txertatetik eskuratu dira, 243 udalek eta udalaz gaindiko 50 entitatek iritsarazi dizkigutenak (ikus IV.1 eta IV.6 eranskinak).

Txosten honetan aurkeztu ditugun ondorioetarako, 2.099.650eko biztanleria hartu da abiaburutzat, eskatutako informazioa igorri duten Euskal Autonomia Erkidegoko 243 udaletan 2003ko urtarrilaren 1ean zeudenak, alegia.

Lana egiteko honako prozedura hauek erabili ditugu:

- 2003ko ekitaldiko Kontu Orokorren analisía, HKEE honetan 2005eko apirilaren 29ra bitartean jasotakoak (ikus Azalpen Atala III.1.1). Azterlan hau oinarri izan da ekonomia-finantza izaerako ondorioak eskuratzeko eta Toki Entitateek, informatzeko betebeharrari dagokionez, legedia zein neurritan betetzen duten zehazteko.
- Udal eta udalaz gaindiko entitate guztien Balantze eta Emaizten Kontuen edukiaren berariazko analisía.
- Kobragarritasunaren gaineko azterketa duten entitateei dagokienez, nekez kobragarri edo kobraezin diren zordunen kontzeptuko murrizketaren arrazoikotasunaren analisía, Diruzaintza Gerakinaren kalkuluan aplikaturik.



## II. ONDORIOAK

### II.1 UDALAREN KONTUAK

Ondotik azalduko ditugun ondorioak Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) 243 udalek igorritako datuetatik eskuratu ditugu (ikus III.1 azalpen atala).

Nahiz udal gehienek Epaitegi honek eskatutako dokumentazioa igortzen duten Ondarroa, Harana, Armiñon, Berantevilla eta Izurtzakoek behin eta berriz urratu dute betebeharrori. Zerrenda honi 2003ko ekitaldiko kontuei dagokienez, Otxandioko udala txertatu behar zaio. Honek esan nahi du EAEren biztanleriaren %94,41 egiten duten udalerriek kontuak aitortzen dizkiotela Epaitegi honi eta aldiz, biztanleriaren %0,59 egiten dutenek ez dituztela aitortzen.

#### Aurrekontuak, Likidazioak eta Kontu Orokorrak

- 129 udalek aurrekontuak 2003ko lehenengo seihilekoan oniritzi zituzten eta 26k, berriz, ekitaldiaren bigarren seihilekoan. Aurrekontua dagokion ekitaldia hasi aurretik oniritzi behar da, Toki Ogasunak Arazten dituen 30/1988 Legearen 150.2 artikulua agintzen duenaren arabera.
- 64 udaletan aurrekontuaren likidazioak indarreko arautegiak agindutako data baino beranduago oniritzi dira. Hiru udaletan ez da likidazioa oniritzi izan denik ageri.
- Laurogeita hamabi udalek Kontu Orokorra arautegiak agindutako data baino beranduago oniritzi dute. 33 udaletan ez dago jasoa kontua oniritzi dutela.

#### Ondare Kontabilitatea

- Hamabost udalek ez dute balantzea igorri, eta hamazazpi udalek galdu-irabazien kontua. Batik bat, 5.000 biztanletik beherako udalerriak dira.
- Udaletan ezarritako ondare kontabilitateak, kasu ugaritan, oraindik ez du eduki zuzena. Honela, bada, 86 udalek ez dituzte balantzean edo galdu-irabazien kontuan ibilgetuaren amortizazioak txertatzen.
- Udal batean balantzeko aktiboak ez du pasiboarekin koadratzen. Beste 7 udalerrik ez dute kaudimengabeziarako zuzkidura erakusten egoera balantzeko zordunen idazpuruan, nahiz diruzaintzaren gerakinaren kalkuluan barne hartzen dituzten.

#### Diruzaintza Gerakinak

- Kobragarritasunaren azterlana egin duten udaletatik badira hiru non Diruzaintza Gerakinean deduzitutako kopurua azterlanean adierazitakoa baino txikiagoa den.

#### Diruzaintza Kontua

- Sei udalek ez dute diruzaintza kontua aurkezten eta aurkezten dutenetatik hamabik, deskoadreak dituzte. Udal diruzaintza egoki kontrolatzeko beharrezko diren neurriak bideratu behar dira.



## II.2 UDALAZ GAINDIKO KONTUAK

- Ondotik zerrendatuko ditugun hauek ez dituzte 2003ko ekitaldiari dagozkion kontuak igorri: Herri Irakaskuntza Mankomunitatea; Enkarterrietako Udalen Mankomunitatea; Uli Mankomunitatea; Debabe Udal Euskaltegien Mankomunitatea; Loatzoko Udalen Mankomunitatea; Iruña Okako Uren Partzuergoa; Ekialdeko Lautadako Uren Partzuergoa; Mendi-Harango Uren Partzuergoa eta La Lombako Uren Partzuergoa. Ezin izan dugu prozesatu Gastronomiako Euskal Museoa Partzuergoak eta Durangoko Eskualdeko Hiltegiak aurkeztutako informazioa, aurrekontuari buruzko legedian finkatutakoarekiko egitura bateragarriak ez mantentzeagatik. Ondotik azalduko ditugun ondorioak Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) udalaz gaindiko 51 erakundek igorritako datuetatik eskuratu ditugu (ikus III.2 azalpen atala).

### Aurrekontuak, Likidazioak eta Kontu Orokorrak

- 27 entitatetan aurrekontuak 2003ko lehenengo seihilekoan onartu zituzten, eta 2 entitatetan, berriz, bigarren seihilekoan. Aurrekontua dagokion ekitaldia hasi aurretik oniritzi behar da, Toki Ogasunak Arautzen dituen 30/1988 Legearen 150.2 artikulua agintzen duenaren arabera.
- Hamabost entitatek aurrekontu-likidazioa aurrekontu-araudiak agintzen duen data baino beranduago oniritzi zuten.
- Hamaika entitatetan Kontu Orokorra aurrekontu-arautegiak agindutako data baino beranduago oniritzi zen eta 13 entitatek txosten hau idatzi dugunean oniritzi gabe zeukaten kontua.

### Ondare Kontabilitatea

- Sei entitatek ez dute balantzea aurkeztu eta 7tan, emaitzen kontua falta da. Gainera, 9ek ez dute ibilgetuaren amortizazioei egiten zaizkien horniketen kalkulua ateratzen; huts hori zuzendu egin behar da, hartara, finantza egoerek ondare egoera zuzen azal dezaten.



### II.3 UDALEN FINANTZA EGOERA

- Finantza egoerak 1999-2003 aldian izan duen bilakaera negatiboa izan da, izan ere, sarrera arrunten igoaldiak eta finantza zamaren beheraldiak, ezin berdindu izan baitute funtzionamendu gastuen gorakada.
- Orokorrean, EAEn multzoari dagokionez, 2003ko ekitaldiaren inbertsio garbia euro konstanteetan aurreko ekitaldikoa baino %11,78 handiagoa izan da; inbertsioen dirulaguntza portzentajeak gora egin du, %24,64ra igo baita ekitaldi honetan eta %24,46ra 2002an.
- Biztanleko gastua guztira %10,66 igo zen 2002ko ekitaldiarekiko, biztanleko batez beste 1.111 euro eginez eta inflazioaren eraginez sortutakoa baino handiagoa izanik (%2,6 Euskal Autonomia Erkidegorako).
- Biztanle bakoitzeko guztizko gastua handiagoa da 50.000 biztanletik gorako udaletan, funtzionamendu gastua handiagoa baitute. 10.000 biztanle baino gutxiagoko udaletan ere hala gertatzen da, funtzionamendu gastu handiagoa izateaz gain, biztanleko inbertsio gastua ere handiagoa delako.
- Udalaren presio fiskala zerga, tasa eta prezio publikoetatik eskuratutako sarreraren arabera, biztanleko 409 eurokoa da. 2002ko ekitaldiarekiko magnitude honek izan duen goraldia %2,76koa izan da.
- Dirulaguntza kontzeptuan eskuratutako diru sarrerak -biztanleko eurotan emanak- %56 handiagoak dira 1.000 biztanletik beherako udalerrietan. Dirulaguntza arruntetan Bizkaia eta Gipuzkoako Lurraldeetako Udal Finantzaketarako Foru Fondoetan finkatzen den gutxieneko ekarpenaren ondorio da.
- Udalen inbertsio erreal garbia biztanleko (burututako inbertsioak, besterenganatzeak kenduta) udalerrien tamainaz alderantzizkoa izan ohi da eta 233 euroko batez bestekora igo da biztanleko 2003an, aurreko ekitaldikoa baino handiagoa, biztanleko 201 euro egin baitzuen.
- Zenbat eta handiagoa den udalerrietako biztanleria, are handiagoa da biztanleko zorra, 50.000 biztanletik gorako udalerrietan izan ezik. Hau horrela gertatzen da Getxo eta Donostiako udalek duten zorpetze maila handiaren ondorioz.

2003ko ekitaldi itxieran udalek igorritako datuetatik eskuratu den gehitutako udal zorpetzea 536.253.000 eurokoa izan da; horrek guztira biztanleko 255 euro egin ditu, 2002ko ekitaldiarekiko %9,25eko beheraldia izan duela (281 euro biztanleko). EAE osorako finantza zama biztanleko 51 eurokoa da eta alde handiak daude lurralde historikoen artean (Araba: 10 euro/bizt., Bizkaia: 50 euro/bizt. eta Gipuzkoa: 69 euro/bizt.).



## II.4 UDALAZ GAINDIKO ENTITATEEN FINANTZA EGOERA

- Udalaz gaindiko entitateen zorpetzea 03/12/31n 455.117.000 eurokoa izan da; horietatik %89 Bizkaiko Garraio Partzuergoarenak dira, Bilboko Metroaren eraikuntzaren ardura izan duen entitatearenak, alegia; horrek inbertsio kopuru handia sortu du, Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldunditik eskuratutako kapital dirulaguntzen eta zorpetzearen bitartez finantzatua. 2003an oniritzitako Inbertsioen Planaren arabera, gauzatzeko dagoen inbertsioa 448.699.000 eurokoa da.
- Udalaz gaindiko entitateek 2003ko ekitaldi itxieran finantza egoera osasuntsua daukate; horietatik 5 salbuespen dira, euren ohiko jardunbideak batez besteko emaitza arrunt negatiboa eragin duelako azken 3 ekitaldietan eta horrek inbertsio berriak egitea eragozten duelako. Udalaz gaindiko entitateen finantzaketa-egitura kontuan izanik, finantza egoera neurri handi batean elkartutako erakundeen ekarpenen eskutan dago.
- Udalaz gaindiko entitateek eskaintzen dituzten zerbitzuen kostuaren finantzaketa, ur eta saneamendu, partzuergo eta baso aprobetxamendu eta garraioena izan ezik, nagusiki dirulaguntza arrunten bidez egiten da, diru sarreren 4. kapituluan erregistratzen direnak. Gestio eraginkorragoa burutzeko, udalaz gaindiko entitateek kalkulatu beharko lukete eskaintako zerbitzuen kostua eta dirutan kobratu erakunde elkartuei ematen dieten zerbitzuen erabileraren arabera. Era horretara superabitak edo defizitak adieraziko luke zerbitzu emanaldiaren eraginkortasuna edo eraginkortasunik eza.



### III. AZALPEN ATALAK

#### LEGE ARAUTEGIA

Toki Entitateentzako aurrekontu gaietako estatuko araudia segidako arauok osatzen dute: Toki Jaurbidearen Oinarriak Aarutzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legea; Toki Ogasunak Aarutzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legea; aurreko legea aurrekontu gaietan garatzen duen apirilaren 20ko 500/90 ED; Toki Entitateen aurrekontuen egitura finkatzen duen 1989ko irailaren 20ko Agindua; eman diren kontabilitate-agindu ugariak.

EAEren esparruan, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak emandako epaien ondoren -3 Lurralde Historikoetako aurrekontuen foru arauak baliogabe utzi zituztenak- foru arau berriak onetsi dira, indarraldia 2003ko amaieratik eta 2004ko hasieratik aurrera izango zutenak. Foru arau berri hauek dira, Araban otsailaren 9ko 3/2004 Foru Araua; Bizkaian, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Araua eta Gipuzkoan, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araua.

Foru Dekretuen bidez garatu dira aurrekontuei buruzko Foru Arauak Lurralde Historiko bakoitzean eta horietan toki entitateen aurrekontuaren egitura eta kontabilitate publikoaren plan orokorra onartu dira; Bizkaia eta Gipuzkoan indarraldia 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera izan dute eta Araban, berriz, 2005eko urtarrilaren 22tik aurrera.

Arautegia bete izanaren azterketa, ezargarria zaien legeriaren arabera mamitu da eta azaleratu diren hutsak IV.2, IV.3.1, IV.3.2, IV.4, IV.7, IV.8.1, IV.8.2 eta IV.9 Eranskinetan zehaztu dira.

#### III.1 UDALAK

Txosten honetako ondorioak eskuratzeko finkatutako biztanleria mailak honako hauek dira:

MAILA	UDAL KOP.	BIZT.KOP. 03/1/1
> 50.000 .....	7	1.045.949
20.001 - 50.000 .....	11	342.235
10.001 - 20.000 .....	22	316.656
5.001 - 10.000 .....	24	171.439
1.001 - 5.000 .....	77	176.319
< 1.000 .....	102	47.052
<b>EAE GUZTIRA</b>	<b>243</b>	<b>2.099.650</b>
ARABA .....	48	293.390
BIZKAIA .....	107	1.121.844
GIPUZKOA .....	88	684.416



### III.1.1 2003-KO EKITALDIAREN KONTUAK

Euskal Autonomia Erkidegoaren 250 udaletatik, 243k igorri dute Epaitegi honek eskatutako informazioa, txosten honetan aurkeztu ditugun ondorioetarako prozesatu dena.

Hiru Lurraldeetako udalen aurrekontu likidazio eta Kontu Orokorrari dagokion dokumentazioa, Foru Arau bakoitzaren 47 eta 62 artikuluek arautzen dute.

Txosten hau mamitu ahal izateko, udalei honako dokumentazio hau eskatu diegu:

- 2003ko udal aurrekontua Agintaritza Aldizkarian argitaratu izanaren kopia eta aurrekontuaren hasierako onarpen data.
- 2003ko ekitaldiko aurrekontu likidazioari oniritzia ematen dion dekretua.
- 2003. ekitaldiko aurrekontuaren likidazio espedientea, ezargarria zaion arautegian agindutako edukiaren arabera.
- Kontu Orokorrari oniritzia eman ez osoko bilkurak hartutako erabakiaren egiaztagiria.
- 2003. ekitaldiko Kontu Orokorra, arautegian agindutako edukiaren arabera.

2001. eta 2002. ekitaldietako txosten diagnostikoan adierazi genuen moduan, berriz azpimarratu behar dugu ezinbestekoa dela Kontu Orokorrak espediente bakar bat osatzea, bertan indarreko araudiak agintzen duen agiriak bilduko direla.

Udalek igorri duten agirien edukia aztertzeari dagokionez, hiru huts mota bereizi ditugu:

- Kontu Orokorraren eduki formalean eragina duten hutsak.
- Udalen kontu orokorren informazioaren eduki kualitatiboan eragina duten hutsak.
- Aurrekontu, aurrekontuen likidazio eta Kontu Orokorra oniritzteko epeetan eragina dutenak.

IV.2, IV.3.1, IV.3.2 eta IV.4 eranskinetan zehazten dira prozesatu ditugun 243 udaletan aurkitutako akatsak.

Azpimarratu behar dugu udalerrien %5 egiten duten 12 udaletan ez dela arestian aipatutako eranskinetan zehaztutako hutsetatik batere azaleratu; horietatik 1 Arabako Lurralde Historikoan dago; 2 Bizkaian eta 9 Gipuzkoan.



### III.1.1.1 UDAL KONTUEN EDUKIAN HUTSAK

#### Kontuen eduki formalean

Ondoko taulan HKEEren aurrean kontuak aitortzeko obligazioa bete duten 243 udaletan azaleratu diren huts formal adierazgarriak azalduko ditugu, 2003ko ekitaldiari dagozkionak (ikus IV.2 eranskina).

HUTSA	UDAL KOPURUA	
	2002	2003
<b>Kontu Orokorra oniritzi izanaren egiaztagirik ez dago .....</b>	<b>37</b>	<b>33</b>
Ez da Balantzea barne hartu .....	18	15
Ez da Emaitzen kontua barne hartu .....	20	17
Ez da finantzaketa taula barne hartu .....	3	87
Ez da udal zorrari buruzko informaziorik jaso .....	1	21
Ez da Memoriarik egin .....		Ez da ezargarria 64
Ez da Aurrekontu Emaitzaren kalkulua jaso .....	7	5
Ez da diruzaintza gerakinaren kalkulua barne hartu .....	2	1
Ez da Diruzaintza kontua jaso .....	6	6

Kontu Orokorra, Egoera Balantzeak, Galdu-Irabazien Kontuak, Oroit-idatziak eta aurrekontuaren likidazioak osatzen dute eta udalak garatutako kudeaketa erakusten du, ekonomia, finantza, ondare eta aurrekontuari dagozkion alderdietan. Kontu Orokorra mamitzeko obligazioa, hori onartu eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari aitortzekoa, hiru Lurralde Historikoen Foru Arauetan dago xedatua eta hala ez betetzeak erakunde hauen kudeaketan buru egin behar duen gardentasuna eragiten du.

Finantzaketaren taula eta zorrari buruzko informazioa aurkezten ez duten udalen kopuruak gora egin izana, 2003ko ekitaldian dokumentu hauek udalerrri guztiei aurkeztarazten dien Foru Arau berriak indarrean sartu izanari zor zaio, eta ez, 2002ko ekitaldian ezargarria zen estatuko arautegiak agintzen zuen moduan, 5.000 biztanletik gorako udalei soilik.

- Bost udalerrrien aurrekontu likidazioak ez du aurrekontu emaitzaren kalkulua barne hartzen; bost udalerrriak 1.000 biztanle baino gutxiago dituzten Gipuzkoako herriak dira. Gainera, azken hauetako batek diruzaintza gerakinaren kalkulua ere ez du jaso.



## Informazioaren eduki kualitatiboan

Ondotik erakutsiko ditugun tauletan Kontu Orokorra osatzen duten hainbat ataletan bildutako informazioan azaleratu diren hutsik adierazgarrienak laburbilduko ditugu (ikus IV.3.1 eta IV.3.2 eranskinak).

AURREKONTUAREN HUTS KUALITATIBOAK	UDAL KOPURUA	
	2002	2003
1. eta 2. kapituluetak sarrerak kutxa irizpidearen arabera erregistratzen dira .....	26	41
Gastuak kutxa irizpidearen arabera erregistratzen dira .....	15	30
Zalantzazko kobrantzarako zuzkidura, Diruz. Gerak. kendua, kobragar. analisia baino baxuagoa .....	7	3
Oker kalkulaturako aurrekontu emaitza .....	13	20
Ez dira kalkulatu ekitaldiko aurrekontuaren emaitzen zuzketak .....	21	18
Oker kalkulaturako diruzaintza gerakina .....	5	5
Ez da kalkulatu Gerakina atxikitako finantzaketa duten gastuetarako .....	30	30
Ekitaldiko Diruzaintza Kontuan deskoadreak daude .....	7	12

- Diruzaintza Gaindikinetik kobragarritasunaren analisisian kalkulaturakoa baino zalantzazko kobrantzarako zuzkidura baxuagoa deduzitu duten 3 udalez gain, beste 16 udal daude, 24 hilabetetik gorako antzinatasuneko kobratzeko zorrak izanik, kobragarritasun azterketarik ez dutenak eta Diruzaintza gaindikinetik inongo kopururik deduzitu ez dutenak.
- Emaitza oker kalkulatu duten 20 udaletatik, 11 kasutan kalkulua egiteko ekitaldi itxien balio gabetzeak ez aintzat hartu izanaren ondorio da, Foru Arauek agintzen duten modura. Honek irizpide aldaketa dakar 2002ko ekitaldiarekiko, orduan estatuko arautegia baitzen ezargarri.

ONDAREAREN HUTS KUALITATIBOAK	UDAL KOPURUA	
	2002	2003
Ez du balantzearen aktiboak eta pasiboak koadratzen .....	9	1
Balantzeak edo emaitzen kontuak ez ditu amortizazioak barne hartzen .....	84	86
Balantzean ibilgetuko kontusail negatiboak .....	29	33
Balantzean zor negatiboa .....	2	8
Zorraren eranskina ez dator bat balantzearekin .....	47	45
Kaudimengabeziarako zuzkidura, balantzean islatu gabea .....	10	7
Balantzean kaudimengabeziarako zuzk. diruz. gerakinarena baino txikiagoa .....	5	2

- Balantzean edo emaitzen kontuan ibilgetuaren amortizazioak barne hartzen ez dituzten 86 udaletatik 74, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei dagozkie.
- Balantzean zor negatiboa duten 8 udalez gain, beste 16k zorraren osagarri diren idazpuruetakoren bat zeinu negatiboarekin azaldu dute, zorraren zor saldoa guztira positiboa izanik; honenbestez, akatsa birsailkapen ezaren ondorio dela uste dugu.



### III.1.1.2 ONIRIZPEN EPEETAN HUTSAK


IV.4 eranskinean zehaztu dira banaka prozesatu ditugun 243 udaletan aurkitutako akatsak.

#### Aurrekontuen onirizpena

Aztertu ditugun 243 udaletatik %30ak bakarrik oniritzi ditu 2003ko aurrekontuak ekitaldia hasi aurretik. Hona hemen aurrekontuak oniritzi zituzten daten arabera udalen sailkapena:

AURREKONTUEN ONIRIZPENA

Udal kopurua



- Aurreko urteko aurrekontua luzatu duten 14 udalen artean Errezilgo udala barne hartu dugu, formalki 2003ko ekitaldirako aurrekontua 2004ko urtarrilaren 15ean oniritzi duena.




## Likidazioaren onespena

Udalen %72ak 2003ko ekitaldiaren aurrekontu likidazioa 2004ko apirilaren 1a baino lehenago oniritzi du; gainerakoek, berriz, aurrekontuzko arautegiak emandako epea urratu dute. Hona hemen 2003ko aurrekontuen likidazioa onetsitako aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

LIKIDAZIOAREN ONESPENA

Udal kopurua



## Kontu Orokorraren onespene data


2003ko Kontu Orokorra onesteko azken data uztailaren 31 da 3 Lurralde Historikoentzat, bakoitzaren Foru Arauaren 63. artikulua agintzen duen moduan.

Udalen %49k Kontu Orokorra arautegiak agindutako datan onetsi dute.

Kontu Orokorra oniritzeko entitate kopurua eta oniritzen aldiak honako hauek dira:

KONTU OROKORRAREN ONESPENA

Udal kopurua



## III.1.1.3 GERAKIN NEGATIBOEN FINANTZAKETA, 2001



- Gastu orokorretarako diruzaintza 01/12/31n negatiboa zuten 13 udaletatik, 12k ondoko moduan finantzatu dute:
  - Sei udalek aurrekontuaren gastu kontusailak murriztuta.
  - Sei udalek 2002an edo 2003an gerakin positiboak eskuratuta, aurreko saldo negatiboa berdindu dutenak.
- Otxandioko Udalak ez du informazioa aurkeztu eta honenbestez, ez dakigu haren egoera 2001eko diruzaintza gerakin negatiboa finantzatzeari dagokionez.

### III.1.2 UDALEN FINANTZA EGOERA 03/12/31-N

Euskal udalen finantza egoera 03/12/31n nolakoa zen aztertzeke txosten honetako IV.11 eranskinean jasotako datuak erabili ditugu, HKEEri udalek emandako kontuei buruzkoa.

Aurrez aipatutako informaziotik sektoreko datu atxikituak eskuratu ditugu; horiek osotasunean, biztanle maila eta lurraldeka finantza egoera aztertzea bideratzen dute.

Berebat, udalentsat eurentzat ere eta hauekin zerikusia duten erakunde eta entitateentzat baliozko baliabidea izan dadin, udalerrri bakoitzari dagokionez biztanleko hainbat ratio eskuratu dira eta honek termino homogeenok erabilia alderaketak egitea bideratzen du.

#### III.1.2.1 MAGNITUDEEN BILAKAERA 1999-2003 ALDIA

Ondoko tauletan azaldu ditugun magnitudeak ekitaldi bakoitzeko aurrekontuen likidazioak abiaburu hartuta eskuratu ditugu, baloreak 1999ko ekitaldiko pezeta konstanteetara deflaktatuaz, Lurralde Historiko bakoitzaren urteko inflazio tasen arabera. Datuak aztergai izan dugun aldiko ekitaldi guztietan kontuak aitortu dituzten udalei dagozkie.

#### AURREZKI GARBIAREN BILAKAERA 1999-2003


							Mila euro
							% URTEARTEKO
MAGNITUDEA	DESKRIBAPENA	1999	2000	2001	2002	2003	aldaketa
Sarrera arruntak	Sarreraren 1-5 kap.	1.578.603	1.583.338	1.669.396	1.633.537	1.661.642	%1,29
Ken:							
Funtzionamendu gastuak	Gast. 1, 2 eta 4. kap.	1.101.908	1.153.489	1.180.056	1.249.942	1.329.281	%4,80
Finantza zama	Gast. 3 eta 9. kap. (birfinantzaketatik garbi)	164.480	111.292	109.325	94.343	92.221	%(13,47)
<b>Aurrezki garbia</b>		<b>312.215</b>	<b>318.557</b>	<b>380.015</b>	<b>289.252</b>	<b>240.140</b>	<b>%(6,35)</b>

Urtearteko aldaketak, positiboa sarrera arruntentzat %1,29an eta funtzionamendu gastuentzat %4,80an eta negatiboa finantza zamarentzat %13,47an, aurrezki garbiak %6,35 behera egitea eragin du.



AURREZKI GARBIAREN BILAKAERA 1999-2003

Mila euro



Aztertutako aldirian aurrezki garbiak behera egin izana funtzionamendu gastuen igoeraren ondorio da, osatzen duten gastu partida gutzietan igoaldiak izan baititu.

Aurrezki garbiaren bilakaera positiboa izan da Gipuzkoako Lurralde Historikoan soilik, urtearteko %5,13ko batez besteko igoerarekin; Arabak eta Bizkaiak, berriz, hurrenez hurren, %(15,56) eta %(11,82)ko aurrezkiak izan dute. Gipuzkoan aurrezki garbiaren jokabidea hobea izateko arrazoiak dira sarrera arruntak gehien hazi diren eta funtzionamendu gastuak gutxien igo diren lurraldea izatea. Aurrezki garbian igoera adierazgarriena 2001eko ekitaldian izan zen, 2002 eta 2003ko urteetan behera egin zuela.

Aztertutako 243 udaletatik, 134 udaletan aztertutako aldirian aurrezki garbiak behera egin du, sarrera arruntan murrizpen edo igoaldi txikiak, eta funtzionamendu gastuen edo finantza zamaren igoaldi handien ondorioz, ondoko xehekapenaren arabera:

UDAL KOPURUA	
Sarrera arruntaren gutxitzea edo igoaldi txikia .....	39
Funtzionamendu gastuen edo finantza zamaren igoera handia .....	83
Aurreko bi kausen eragin bateratua .....	12
<b>GUZTIRA</b>	<b>134</b>

1999-2003 aldirako inbertsio garbiaren bilakaera ondoko taulan islatu da:


INBERTSIO GARBIAREN BILAKAERA 1999-2003		Mila euro				
MAGNITUDEA	DESKRIBAPENA	1999	2000	2001	2002	2003
Inbertsio Garbia	Gtu.6. Kap.+ Gtu.7. Kap – Sarreraren 6. kap.	375.764	299.039	396.684	427.792	478.166
Kapital dirulaguntza	Sarreraren 7. kap.	90.224	76.142	91.115	104.636	117.838
Dirulag. inbertsioa	Kap. Dirul./ Inb. Garbia	%24,01	%25,46	%22,97	%24,46	%24,64



- Inbertsio garbiak aztergai izan dugun aldi batez bestean %6,21eko urtearteko igoera izan du, 2001 eta 2003an nagusiki, 2000ko ekitaldian behera egin duela.
- EAEn diruz lagundutako inbertsioak ia egonkor eutsi dio aztertutako aldiari, 2001eko ekitaldian salbu -behera egin baitu- eta 2000koan, igoera nabarmena izan duena.

INBERTSIO GARBIAREN BILAKAERA LURRALDEKA

Mila euro



- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoen gehitu egin dituzte 2003ko ekitaldian inbertsio mailak 2002koaren aldean, hurrenez hurren, 9.735.000, 28.690.000 eta 6.362.000 euroan.

1999-2003ko aldiaren biztanle bakoitzeko inbertsioa Bizkaian 850 eurokoa izan da, Arabako biztanleko 1.127 euroren eta Gipuzkoako biztanleko 1.075 euroren aldean.

- Diruz lagundutako inbertsioari dagokionez, Araba eta Bizkaian aztertutako aldiaren eskuratutako batez besteko ehunekoa %25etik gorakoa izan zen eta Gipuzkoan, ehuneko hori %20 ingurukoa da.

1999-2003 aldirako erabilitako zorpetzea aldatu egiten da ondoko taulan islatutakoaren arabera:

ERABILITAKO ZORPIDETZAREN BILAKAERA 1999-2003

Mila euro

MAGNITUDEA	1999	2000	2001	2002	2003	% Urtearteko aldaketa
Erabilitako zorra (pta. konstanteak 1999) .....	620.675	541.032	473.017	436.338	423.009	(9,14)%

Aztergai izan dugun aldiaren erabilitako zorpetzeak behera egin izanaren arrazoiak da sortutako aurrezki garbia inbertsioak finantzatzeko eta zorra murrizteko erabili izana.



Aztergai izan dugun aldian inflazioaren eraginak %3,06ko urteko batez besteko murrizketa ekarri du erabilitako zorpetzean.

### III.1.2.2 DATU OROKORRAK LURRALDEKA BEREIZITA ETA BIZTANLE KOPURUAREN ARABERA MAILAKATUTA

Atal honetan erabilitako aldakiak 2003ko ekitaldikoak dira eta euro nominaletan adieraziak daude, biztanleriaren eta Lurralde Historikoaren arabera bereiziak:

MAILA	Mila euro						
	UDAL KOP.	DIRU-SARRERA ARRUNTAK	FUNTZION. GASTUAK	FINANT. ZAMA (1)	AURREZKI GARBIA	DIRUZ. GER. 03/12/31	ZORPID. 03/12/31 (2)
> 50.000 .....	7	978.477	818.725	61.087	98.665	159.269	296.074
20.001-50.000 .....	11	280.012	224.565	13.995	41.452	119.236	59.237
10.001-20.000 .....	22	293.112	220.505	14.043	58.564	118.254	73.987
5.001-10.000 .....	24	166.930	117.334	8.559	41.037	43.120	45.390
1.001-5.000 .....	77	167.658	129.800	6.678	31.180	64.133	48.828
< 1.000 .....	102	51.288	37.132	1.793	12.363	17.419	13.042
<b>EAE GUZTIRA</b>	<b>243</b>	<b>1.937.477</b>	<b>1.548.061</b>	<b>106.155</b>	<b>283.261</b>	<b>521.431</b>	<b>536.558</b>
ARABA .....	48	287.958	256.605	3.027	28.326	55.331	73.421
BIZKAIA .....	107	977.210	793.043	56.046	128.121	322.582	196.592
GIPUZKOA .....	88	672.309	498.413	47.082	126.814	143.518	266.545

(1) Birfinantzaketatik garbi

(2) Elkarkidetzarekiko zor eguneratutik garbi

Aldaki horiek 50.000 biztanletik gorako udalen eta gainerakoen artean alderatzen baditugu, hona hemen aldeak:

MAGNITUDEA	Mila euro				
	> 50.000	GAINERAKOA	EAE. > 50.000	SARR. ARRUNT. GAIN. %	GAINERAKOA
Sarrera arruntak .....	978.477	959.000	%100	%100	%100
Funtzionamendu gastuak .....	818.725	729.336	%79,9	%83,7	%76,1
Finantza zama .....	61.087	45.068	%5,5	%6,2	%4,7
<b>Aurrezki garbia</b>	<b>98.665</b>	<b>184.596</b>	<b>%14,6</b>	<b>%10,1</b>	<b>%19,2</b>
<b>Diruzaintzako gerakina</b>	<b>159.269</b>	<b>362.162</b>	<b>%26,9</b>	<b>%16,3</b>	<b>%37,8</b>
<b>Zorpetzea</b>	<b>296.074</b>	<b>240.484</b>	<b>%27,7</b>	<b>%30,3</b>	<b>%25,1</b>

Aurreko datuetatik honako ondorioak eskuratu ditugu:

- 2003eko urtean 50.000 biztanletik gorako udalek, sarrera arruntei dagokienez, gainerako udalek baino funtzionamendu gastu handiagoak dituzte, 8 puntukoa gainerako udalekiko. 2002n, berriz, diferentziala 6 puntukoa izan zen.



- Bizkaia eta Gipuzkoako Lurraldeek finantza zama handiagoa izatearen arrazoia Arabakoaren aldean, bi lurralde hauetako zorpetzeak izan duen bilakaera positiboaren ondorio da, 2002an ekitaldiko sarrerak %24,89 eta %45,69 izatetik, 2003an sarrera hauek berak %20,09 eta %39,65 izatera aldatu baitziren.

### III.1.2.3 RATIOAK BIZTANLEKO

IV.5 eranskinean udalen zerrenda jaso da eta udal guztiak biztanleriaren arabera hurrenkeratu dira, bakoitzari dagozkion ratioak adieraziz. Atal honetan ratio bakoitzean eskuratu diren emaitzak azalduko ditugu, biztanle mailaren eta Lurralde Historikoaren arabera bereziak, 2003ko urterako.

Biztanlekako ratioak aztertzean kontuan hartu behar da 2003. ekitaldiko inflazioa %2,6koa izan zela EAEn, %2,6koa Araban eta %2,8 Bizkaiaren eta %2,4 Gipuzkoarako.

#### III.1.2.3.1 Aurrekontu gastuei buruzko ratioak

MAILA	Euroak/biztanleko					
	UDAL KOPUR.	GASTUA 2002 (1)	GASTUA 2003 (1)	FUNTZ. GASTUA (2)	FINANT. ZAMA (3)	INBERTSIOA (4)
> 50.000 .....	7	1.001	1.105	783	59	246
20.001-50.000 .....	11	837	926	656	41	226
10.001-20.000 .....	22	996	1.066	696	44	319
5.001-10.000 .....	24	1.034	1.181	685	50	441
1.001-5.000 .....	77	1.204	1.407	736	38	618
< 1.000 .....	102	1.470	1.517	789	38	684
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>243</b>	<b>1.004</b>	<b>1.111</b>	<b>737</b>	<b>51</b>	<b>311</b>
ARABA .....	48	1.168	1.227	875	10	341
BIZKAIA .....	107	928	1.054	707	50	280
GIPUZKOA .....	88	1.056	1.153	728	69	348

(1) Obligazio aitortuak, gastuen 1etik 9rako kap.

(2) Obligazio aitortuak, gastuen 1,2 eta 4. kap.

(3) Obligaz. aitort., 3 eta 9. kap. zorra berfinantz. gastu garbiak


(4) Obligazio aitortuak, gastuen 6 eta 7. kap.



- Guztizko gastuei dagokienez, 2002koekiko %10,66 igo dira, batik bat, inbertsioek gora egin dutelako.

---

#### GASTUAREN BANAKETA BIZTANLEKO EUROTAN



---

Aurreko datuetatik honako ondorioak eskuratu ditugu:

- 2002n gertatu zenaren antzera, biztanlekako gastua nabarmen altuagoa da 1.000 biztanle baino gutxiagoko udaletan, egitura-gastuek (beren zeregina betetzeko beharrezkoak diren funtzionamendu gastuak) erakutsitako ratioaren kalkuluan duten eraginaren ondorioz.
- 50.000 biztanletik gorako udalen kasuan azpimarratzekoa da biztanle bakoitzeko gastuaren zenbatekoan dagoen aldea, izan ere, hiru hiriburuetan 1.100 euro baino gehiagoko gastua egiten da biztanleko eta, gainerakoetan, berriz, Irungo 1.009 euro eta Portugaleteko 893 euro bitartean kokatzen da.
- Funtzionamendu gastuen artean pertsonal gastuak, erosketak eta zerbitzuak eta transferentzia eta dirulaguntza arruntengatiko gastuak sartzen dira. 1.000 biztanle baino gutxiagoko 9 udalek funtzionamendu gastuak %30 baino gehiago gehitu dituzte 2002ko ekitaldiaren aldean. Gauza berbera gertatzen da 1.001 eta 5.000 biztanle bitarteko 3 udaletan.



Hauek dira 1. kapituluko gastuak “Langileria”, 2. kapituluko gastuak “Erosketak eta zerbitzuak”, eta 4. kapitulukoak “Transferentziak eta dirulaguntza arruntak”, biztanle maila eta lurraldeka xehekatuak:

MAILA	Euroak/biztanleko				Sarrera arr. gaineko %		
	UDAL KOP.	1. KAP. GASTUA	2. KAP. GASTUA	4. KAP. GASTUA	1. KAP. GAST.	2. KAP. GAST.	4. KAP. GAST.
> 50.000 .....	7	305	326	152	32,60	34,80	16,28
20.001-50.000 .....	11	267	262	127	32,59	32,08	15,53
10.001-20.000 .....	22	278	291	127	30,03	31,44	13,76
5.001-10.000 .....	24	260	301	124	26,73	30,87	12,70
1.001-5.000 .....	77	258	359	119	27,16	37,71	12,55
< 1.000 .....	102	292	357	140	26,78	32,80	12,82
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>243</b>	<b>287</b>	<b>311</b>	<b>139</b>	<b>31,08</b>	<b>33,76</b>	<b>15,07</b>
ARABA .....	48	403	327	145	41,04	33,35	14,73
BIZKAIA .....	107	265	318	124	30,46	36,45	14,25
GIPUZKOA .....	88	272	295	161	27,72	30,01	16,40

### III.1.2.3.2 Aurrekontu gastuei buruzko ratioak

MAILA	Euroak/biztanleko				
	UDAL KOP.	SARRERAK 2002 (1)	SARRERAK 2003 (1)	PRESIO FISKALA (2)	DIRULAG.ERAG. SARRERAK (3)
> 50.000 .....	7	1.050	1.021	406	554
20.001-50.000 .....	11	873	946	352	496
10.001-20.000 .....	22	1.033	1.043	413	551
5.001-10.000 .....	24	1.086	1.133	493	548
1.001-5.000 .....	77	1.232	1.376	448	683
< 1.000 .....	102	1.508	1.499	435	879
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>243</b>	<b>1.047</b>	<b>1.062</b>	<b>409</b>	<b>562</b>
ARABA .....	48	1.134	1.157	427	587
BIZKAIA .....	107	989	985	380	541
GIPUZKOA .....	88	1.103	1.148	450	585

(1) Eskubide aitortuak, sarreraren 1etik 9rako kap.

(2) Eskubide aitortuak, sarreraren 1etik 3rako kap.


(3) Eskubide aitortuak, sarreraren 4tik 7rako kap.

- EAEn guztizko sarrerak %1,43ko igoera izan dute 2002ko ekitaldiarekiko, biztanleko 15 euroko igoaldia, alegia. Guztizko sarrerak ere igoaldia izan dute, %10,66 handiagoa 2002ko gastuen aldean eta biztanleko 107 euroko igoera ekarri dute.

Sarreraren igoaldia, batik bat, dirulaguntza sarreraren igoaldiak eragin du, nahiz Araba eta Gipuzkoan Bizkaian presio fiskalak ere (1etik 3ra bitarteko Kap.) pisu adierazgarria izan duen aipatutako igoeran.



SARRERAREN BANAKETA BIZTANLEKO EUROTAN



Ratio horiek aztertuta, hona hemen eskuratu ditugun datu adierazgarrienak:

- Ondotik zerrendatzen diren hamalau udalak dira biztanleko presio fiskal handiena dutenak:

Presio fiskala (pta/bizt.)	Presio fiskala (euro/bizt.)	Presio fiskala (euro/bizt.)
Zigoitia 856	Zamudio 936	Bastida 1.101
Zaldibar 877	Zierbena 953	Berrobi 1.333
Mallabia 902	Olaberria 1.018	Bakio 1.334
Lantaron 920	Elciego 1.051	Oiartzun 2.008
Beizama 923	Aduna 1.100	

- Presio fiskal altuago honen arrazoiak hauek dira, batik bat:
  - Elciego, Zierbena, Lantaron eta Mallabiko Udaletako Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga, burututako eraikuntza jarduerak direla-eta.
  - Aduna eta Zigoitiko Udaletako Ondasun Higiezinaren gaineko zerga, biztanle bakoitzeko balio katastrala batez bestekoaren ginetik dagoelako.
  - Zamudio eta Lantarongo Udaletako Jarduera Ekonomikoen gaineko zerga, industri maila handiagoa dagoelako.
  - Tasa eta prezio publikoak Oiartzun, Bakio, Berrobi, Bastida, Aduna, Elciego, Olaberria, Zamudio, Beizama, Mallabia eta Zaldibarko udaletan. Igorritako likidazioen xehekapenean ikusi dugu zenbait udalek kapitulu honetan hirigintzako aprobetxamenduak bezalako kontzeptuak erregistratu dituztela.



- Dirulaguntzek eragindako sarreren banaketa biztanleko eurotan, mailen arabera banatua, honako hau da:

MAILA	Euroak/biztanleko											
	ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA			EAE		
	UDAL KOP.	DIRUL. ARR.	KAP. DIRUL.	UDAL KOP.	DIRUL. ARR.	KAP. DIRUL.	UDAL KOP.	DIRUL. ARR.	KAP. DIRUL.	UDAL KOP.	DIRUL. ARR.	KAP. DIRUL.
> 50.000	1	533	21	4	507	36	2	521	59	7	516	38
20.001-50.000	-	-	-	7	425	50	4	514	27	11	454	42
10.001-20.000	1	667	92	8	436	71	13	516	40	22	496	55
5.001-10.000	1	518	44	11	416	125	12	494	59	24	459	89
1.001-5.000	15	445	232	39	452	183	23	530	237	77	476	207
< 1.000	30	368	348	38	655	350	34	700	183	102	576	303
<b>BATEZ BESTE</b>	<b>48</b>	<b>525</b>	<b>62</b>	<b>107</b>	<b>474</b>	<b>67</b>	<b>88</b>	<b>520</b>	<b>65</b>	<b>243</b>	<b>496</b>	<b>66</b>

- Arau orokor modura, kapital dirulaguntzen bolumena udalerrietako biztanleriaren tamainarekiko alderantziz proportzionala da.
- Araba eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan, biztanleko eurotan emandako dirulaguntza arruntak Bizkaiko Lurralde Historikoan baino handiagoak dira. Alderik handienak Arabako Lurralde Historikoan Laudioko udalerrian -biztanleko 667 euro jasotzen baititu eta 10.001etik 20.000 biztanle bitarteko udalen mailan kokatzen baita- eta Gipuzkoako udalerrian izan dira, 1.000 biztanletik beherako atalean biltzen diren udalek eskuratu dituzten dirulaguntza handien ondorioz.
- Baliarrain eta Arakaldoko Udalak dira biztanleko kapital dirulaguntza handienak eskuratzen dituztenak, 2.794 eta 2.606 euro, hurrenez-hurren.
- Dirulaguntza bitartez finantzatutako kapital gastuen portzentaia aztertu dugu eta hortik ateratzen da 61 udaletan kapital dirulaguntzek eragindako sarrerek kapital gastuen %50 baino gehiago finantzatzen dituztela, EAEn batez bestekoa baino askoz ehuneko handiagoa dena (%20,30).
- Ondoko udal hauek gastu arruntetarako biztanleko 1.200 eurotik gorako dirulaguntzak jasotzen dituzte:

Udala	Biztanleria	Dirul. arrunta		Udala	Biztanleria	Dirul. arrunta	
		euro/biz.				euro/biz.	
Baliarrain	97	2.041		Gizaburuaga	140	1.486	
Zegama	1.300	1.957		Gaintza	129	1.256	
Arakaldo	94	1.777		Nabarniz	226	1.208	
Orexa	83	1.747					



### III.1.2.3.3 Aurrekontu Emaitzei buruzko ratioak


MAILA	Euroak/biztanleko			
	UDAL KOP.	DIRUZAINZA GERAKINA (1)	AURREZKI GORDINA (2)	AURREZKI GARBIA (3)
> 50.000 .....	7	130	153	94
20.001-50.000 .....	11	317	162	121
10.001-20.000 .....	22	346	229	185
5.001-10.000 .....	24	208	289	239
1.001-5.000 .....	77	333	215	177
< 1.000 .....	102	351	301	263
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>243</b>	<b>221</b>	<b>186</b>	<b>135</b>
ARABA .....	48	108	107	97
BIZKAIA .....	107	284	164	114
GIPUZKOA .....	88	168	254	185

(1) Diruzaintza gerakinak ez ditu erabili gabeko zorpetzeak eragindako sarrerak barne hartzen, udalerrien arteko datuak berdintzearen.

(2) Aitortutako eskubideak 1etik 5erako kapit., ken aitortutako obligazioak 1, 2 eta 4. kap.

(3) Aurrezki garbia ken finantza zama.

#### AURREKONTUKO EMAITZEN BANAKETA BIZTANLEKO EUROTAN





- Ondotik, diruzaintzako gerakin negatiboa duten EAeko 33 udalak biztanle maila eta lurraldearen arabera zerrendatuko dira; diruzaintza hori datozen ekitaldietan gastuari murriztuz edo zorpetze bidez finantzatu beharko dute:

MAILA	UDAL KOP.	% BIZT. MAILAREN GUZTIZK. GAIN.
5.001-10.000 .....	3	%12,50
1.001-5.000 .....	18	%23,38
< 1.000 .....	12	%11,76
<b>EAE GUZTIRA</b>	<b>33</b>	<b>%13,58</b>
Araba .....	9	%18,75
Bizkaia .....	18	%16,82
Gipuzkoa .....	6	%6,82

### III.1.2.3.4 Zorpetzea eta Finantza Zamari buruzko ratioak

Udalen artean datuak berdintzearen, udal zorpetzearen barruan Elkarkidetzarekiko zor eguneratua barne hartu da, zenbait udalek zor hori finantza entitateekin maileguak sinatuz amortizatu dutelako. Halaber, udalerriek 03/12/31n erabilitako zorra soilik hartu da gogoan.

MAILA	UDAL KOP.	Euroak/biztanleko	
		ERABILITAKO ZORPIDETZA 03/12/31 (1)	ZORPIDETZA MAILA (2)
> 50.000 .....	7	262	%6,24
20.001-50.000 .....	11	142	%5,00
10.001-20.000 .....	22	215	%4,79
5.001-10.000 .....	24	232	%5,13
1.001-5.000 .....	77	254	%3,98
< 1.000 .....	102	266	%3,50
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>243</b>	<b>232</b>	<b>%5,48</b>
ARABA .....	48	170	%1,05
BIZKAIA .....	107	174	%5,74
GIPUZKOA .....	88	354	%7,00

(1) Erabilitako aurrekontuko zorra, Elkarkidetzarekiko zorra barne hartuta.

(2) Sarrera arrunten gainean finantza zamaren %.

- Bizkaiko Lurralde Historikoan, zorraren bilakaera aldekoa izan da aztergai izan dugun aldian eta aurreko ekitaldiarekiko magnitude hau %1,28 jaistea eragin du.
- Zenbat eta handiagoa den udalerrietako biztanleria, are txikiagoa da biztanleko zorra, 50.000 biztanletik gorako udalerrietan izan ezik. Egoera hau Donostiako eta Getxoko udalek duten zerga handiagoak sortu du.



Biztanleria mailen azterketa xehekatuak zera erakutsi digu:

- 50 udalek ez dute zorpetzerik 03/12/31n eta horietatik 34k 1.000 biztanletik behera dituzte.
- 20.000 biztanletik beherako ondoko udal hauek 03/12/31n erkidegokoaren batez bestekoaren zorra baino nabarmen handiagoa dute, 232 euro biztanleko:

UDALA	BIZTANLERIA	ERABILITAKO ZORRA	(*) ZORPETZE MAILA
Baliarrain .....	97	2.258	%2,69
Mutiloa .....	159	2.025	%17,02
Nabarniz.....	226	1.925	%4,72
Aduna .....	341	1.581	%6,21
Murueta .....	264	1.447	%60,20
Leaburu.....	375	1.384	%2,31
Añana .....	185	1.384	%0,00
Mendaro .....	1.515	1.197	%7,87
Olaberria .....	900	1.101	%1,91
Kripan .....	191	1.089	%13,29
Lezo .....	6.013	1.086	%10,88
Orexa .....	83	1.084	%0,00
Kortezubi .....	371	973	%1,59
Zestoa .....	3.081	927	%10,11
Bergara.....	15.044	912	%11,25
Labastida.....	1.302	902	%6,12
Larraul.....	169	888	%1,85
Samaniego .....	317	877	%8,40
Morga .....	422	855	%1,21
Leza .....	210	843	%7,57
Navaridas .....	207	841	%9,64
Valle de Carranza .....	2.909	835	%4,27
Altzaga.....	133	827	%7,03
Biasteri .....	1.463	822	%7,90
Astigarraga.....	3.951	807	%9,66
Gaztelu .....	150	800	%1,11
Soraluze .....	4.158	796	%13,01
Elgeta.....	975	743	%8,31
Forua.....	1.002	743	%6,20
Aulesti.....	654	722	%5,33
Oyón-Oion .....	2.564	705	%1,30
Zeanuri.....	1.144	705	%6,35
Okondo.....	964	683	%12,65
Orio.....	4.605	654	%3,92
Mutriku .....	4.769	639	%9,63
Mañaria.....	453	629	%2,95
Dima .....	1.079	627	%6,27
Mallabia .....	1.119	614	%9,59

(\*) Sarrera arrunten gainean finantza zamaren %.

Taulan ikus daitekeen moduan, erabilitako zorra ez dago beti zorpetze mailarekin lotua; izan ere, zorpetze mailak maileguren birfinantzaketaren, gabezialdien eta horien iraupenaren eragina edo aurretiaz egindako amortizazioena jasotzen baitu.



- Udalen finantza egoera baloratu ahal izateko, elkarrekin aztertu dira jarraian zehazten diren ratioak:

RATIOA	DESKRIBAPENA
Batez besteko emaitza arrunta.	Azken hiru ekitaldietako sarrera arruntak (C1,C2,C3,C4,C5)-Azken hiru ekitaldietako gastu arruntak (C1,C2,C3,C4)
Kapitalaren batez-b. gtu. garbia	Azken hiru ekitaldietako inbertsio gastua (C6,C7,C8) – Kapitallezko sarrerak(C6,C7,C8)
Inbertsiorik gabe zorra ordaintzeko batez besteko. aldia.	(Erabilitako zorra+Gtu. orokorret. gerakin negatiboa)/ Emaidza arrunta
Inbertsioekin zorra ordaintzeko batez besteko aldia	(Erabilitako zorra+Gtu. orokorret. gerakin negatiboa)/ (batez best. emaitza arrunta – kapitalaren batez besteko gastu garbia

Lehenengo ratioak 2001-2003 aldian udalek euren gastu arruntei aurre egin ondoren eskuratutako urteko batez besteko soberakina erakusten du eta inbertsioak finantzatzeko eta/edo zorraren amortizazioei aurre egiteko erabil daiteke; bigarrenak, berriz, udalek aldi horretan egin duten urteko batez besteko inbertsioa, dirulaguntza eta aparteko dirusarrerez garbi.

Aldi berean azken bi ratioek zorra amortiza daitekeen ekitaldi kopurua erakusten dute eta gastu orokorretarako gerakin negatibo osasuntsua, segun eta batez besteko emaitza arrunt guztia helburu horretarako erabiltzen den edota etorkizunean batez besteko inbertsioari eusten zaion.

MAILA	Mila euro				
	UDAL KOP.	B-BES.EMAI. ARRUN.	KAPITAL.B-BES. GTU. GARB.	GTU. ITZULTZEKO BAT-BESTEKO ALDIA INBERTSIORIK G(*)	INBER.AREKIN(*)
> 50.000 .....	7	192.822	171.675	1,42	12,94
20.001-50.000 .....	11	64.975	49.563	0,75	3,16
10.001-20.000 .....	22	74.549	62.173	0,91	5,50
5.001-10.000 .....	24	43.142	41.176	0,96	20,97
1.001-5.000 .....	77	46.544	47.454	1,07	(54,51)
< 1.000 .....	102	12.723	13.896	1,05	(11,42)
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>243</b>	<b>434.755</b>	<b>385.937</b>	<b>1,14</b>	<b>10,13</b>
ARABA .....	48	31.280	52.957	1,62	(2,34)
BIZKAIA .....	107	252.716	191.749	0,79	3,28
GIPUZKOA .....	88	150.759	141.231	1,62	25,60

(\*) Ekitaldi kopurua.

- Aurreko ratioen banakako azterketatik ikus daiteke Alonsotegi, Elantxobe, Larraul eta Samaniegoko udalek soilik dutela batez besteko emaitza arrunt negatiboa 2001-2003 aldian.



- Ondoko 3 udalek zorra itzultzeko ratioei dagokienez, inbertsio bidez eta inbertsiorik gabe, hurrenez hurren, 5 eta 3 urte baino epe luzeagoa erakusten dute.

UDALA	Mila euro				
	ZORRA + GTU. OROK. GERAK.	B-BES. EMAI. NEG. ARRUN.	KAPITAL. B-BES. GTU. GARB.	GTU. ITZULTZEKO BAT-BESTEKO ALDIA INBERTSIORIK G(*)	INBERTS. BIDEZ(*)
Oion .....	1.808	500	189	5,81	3,62
Mutiloa.....	322	86	41	7,16	3,74
Karrantzako Harana .....	2.698	170	158	202,33	14,28

(\*) Ekitaldi kopurua

